



HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_LEY_2893/22_04

Euskal ondare zuzenbidearen eta familia-ondarea eta - enpresa babestean arloko berezitasunei buruzko arautzen duen legea- aurreproiektuaren berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaritzan maiatzaren 4an Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Gobernantza Publikoa eta Autogobernu saileko Lege Garapen eta Arau Kontrolerako zuzendaritzak bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren 14.2. 1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Hasieratik zintzilikatu dira, onarpen aginduarekin batera, lege-aurreproiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete da ekainaren 30eko 6/2022 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 14.5 artikulua. Artikulu horri jarraiki, testuak bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko du, aldez aurretik onartzeko izapidea egin eta ondorengo instrukzio-fasean izapidetu baino lehen.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idatzeko neurriak onartu zituena:

“...betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da”.

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia



alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

Era berean, ekainaren 30eko 6/2022 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 5. artikulua hurrengo xedatzen du:

- 1.– Lege honek arautzen duen arau-xedapen orok bi hizkuntza ofizialetan, euskaraz eta gaztelaniaz, idatzita egon beharko du, zabalkunde ofiziala egiteko.*
- 2.– Hizkuntzen berdintasuna araugintza-prozesuaren kalitatea bermatzeko printzipioa izango da. Hizkuntzen berdintasunaren bidez, testuaren lanketan bi bertsioen arteko elkarriketa egituratua bermatuko da, bi bertsioen arteko kontrastea eta haien baliokidetzat ziurtatuz.*
- 3.– Araugintza-prozedura elebiduna izango da xedapen orokorra egiteko prozedura osoan zehar, eta araugintzan parte hartzen dutenen eta arau-hartzaileen hizkuntza-eskubideak bermatuko dira.*

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, azken xedapenetako lehenengoaren bidez, 10/1982 Legea aldatu zuen, eta 8.1 artikulua honela idatzita geratu zen:

“1.– Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokatutako herri-aginteei emandako xedapen arauemaile zein ebazpen ofizial orok bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du zabalkunde ofiziala egiteko. Eusko Jaurlaritzan prestatzen diren xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko, nahitaezko aholkularitza-txosten bat eman behar da, eta, haren bitartez, izapidetzen ari den xedapenaren eremu objektiboan euskararen erabilera normalizatzeraz zuzendutako neurriak proposatuko dira. Halaber, hizkuntza-gaietan indarrean dagoen araudiarekiko egokitasuna baloratuko da, bestelako organo txostengileei dagozkien zereginei kalterik egin gabe”.

Espedientearen instrukzioa egiteko eskumena duen zuzendaritza-zentroak arau-eraginaren azterketari buruzko memoria egin beharko duela arautzen du ekainaren 30eko 6/2022 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 15.3 artikulua, eta nolana ere memoria horrek bildu beharko dituen gaien artean euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia aztertzen duen txostena dago. Horren bitartez hizkuntza-gaietan indarrean dagoen araudiarekiko egokitasuna baloratuko da, bestelako organo txostengileei dagozkien zereginei kalterik egin gabe, eta izapidetzen ari den xedapenaren eremu objektiboan euskararen erabileraren normalizaziora zuzendutako neurriak proposatuko dira.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Aztertzea eskatu zaigun lege-aurreproiektuak eragin zuzena izan dezake euskararen normalizazioan, bereziki herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeari dagokionez. Horrexegatik, zenbait artikulua moldatzea proposatzen dugu:

Legearen bigarren tituluak, Gipuzkoako baserriaren familia-ondarearen, tronkalekotasunaren eta eskualdaketaren lege-babesa izenekoak esplizituki jaso beharko luke 58. artikuluan aipatzen diren ediktuak bi hizkuntza ofizialetan egiteko betebeharra. Betebehar hori notario-jakinazpenen kasuan ere jaso beharko litzateke, salbu eta interesdunek hizkuntza bat edo bestea nahiago dutela adierazten badute.

Era berean, notarioaren edo agintaritzaren publikoaren aurrean agertzen den tronkalekoari aitortu beharko litzaioke berak aukeratutako hizkuntzan agertzeko eskubidea (adibidez, 67. artikulua).

Bestalde, hirugarren tituluan, Familia ondarea hitzarmenen bidez babestea eta familia-protokoloari buruzkoan, administrazioek protokoloen publizitatea EAEko bi hizkuntza ofizialetan egin behar dutela jasotzea ezinbestekoa iruditzen zaigu herritarren Hizkuntza eskubideak bermatzeko.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria